



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko otsailaren 23an

19 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

—Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrematrikulaziorako epe jakin batzuk ezar ditzan haur eta lehen hezkuntzan, maila ertaineko heziketa zikloetan eta lanbide hastapeneko programe-tan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa birtual baterako plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualde-orekari buruzko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumezkoaren berdintasunerako plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan. Foru Araubide Batzordeak bazter utzia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan. Akats zuzenketa (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko plan bat egin dezan. Akats zuzenketa (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Audenasaren sozioa den aldetik, Administrazio Kontseiluaren bileran enpresari eska diezaion nafar zergadun guztiei “txartel gorria” bidal diezaiela, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua(10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko otsailaren 14an hartutako Erabakiaren bidez, Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Bozera-maileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Emendakinak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Tuterako Udalak eskatzen du herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu dadila eta desafekta daitezela, ondorenean Cooperativa Asociación de Labradores delakolari zuzenean saltzearen; helburua da lekualdatzea kooperatiba horrek Tarazonako bidean dituen instalazioak, bertan Kirolen Hiria eraikiko baita.

Eskatutako desafektazioarekin hauxe lortu nahi da; instalazio berrien proiektua gauzatzeko 1999ko abenduaren 27an Udalak eta Cooperativa Asociación de Labradores-ek egin zuten hitzarmena bete ahal izatea. Instalazio berrien bidez fruta eta barazki freskoak biltegitatu, ontziratatu eta merkaturatu eginen dira, zerealak merkaturatu eta manipulatu, eta baita askotariko hornitzeak egin ere.

Lurzati txikientzat ezarritako mugak gainditzen direnez gero, Tuterako Udalak eskatzen duen lurdesafektazioa foru lege baten bidez onetsi beharrekoa da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 140.5 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Lehen artikulua. Tuterako Udalaren herri lurretako 45.553 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten da. Lur horiek "Las Labradas" bazkalekukoak dira, 12. poligonokoak, katastroko 620, 624, 625 eta 626 zenbakiak dituztenak, hain zuzen.

Bigarren artikulua. Tuterako Udalari baimena ematen zaio aurreko idatz-zatian deskribatutako

lurrak zuzenean sal diezazkion Cooperativa Asociación de Labradores-i, baldin eta ondorengo baldintza hauek betetzen badira:

a) Salmentako akordioko klausula batek xedatu dezala lurrak herri ondarera itzuliko direla, baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila kontratua formalizatzen duen agiri publikoan, Jabetza-erregistroan sartzen den hartan.

c) Bete daitezela Tuterako Udalak behin betikoz onesten duen baldintzen pleguan –foru lege honetako salmentari buruzkoan– agertzen diren erabakiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak oro eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege Proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak".

Biltzarrak, 2000ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1999ko azaroaren 15eko 19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2000ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztutako etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori

1999ko urriaren 29ko 14 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2000ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori

2000ko urtarrilaren 19ko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrematrikulaziorako epe jakin batzuk ezar ditzan haur eta lehen hezkuntzan, maila ertaineko heziketa zikloetan eta lanbide hastapeneko programe-tan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2000ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrematrikulaziorako epe jakin batzuk ezar ditzan haur eta lehen hezkuntzan, maila ertaineko heziketa zikloetan eta lanbide hastapeneko programetan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrematrikulaziorako epe jakin batzuk ezar ditzan haur eta lehen hezkuntzan, maila ertaineko heziketa zikloetan eta lanbide hastapeneko programetan

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleak onartzeko eskariak aurkezteko epea luza dezan azken ikasturtean epe-amaiera gisa jarri zen egunera arte.

2. Maila ertaineko heziketa zikloetako ikasleak onartzeko eskariak aurkezteko epea modu honetara ezar dezan:

– epe arrunta: maiatzaren 2tik ekainaren 13ra

– epe berezia: irailaren 1etik 8ra

3. Lanbide hastapeneko programetan ikasleak onartzeko eskariak aurkezteko epea ekainaren 18tik uztailaren 3ra artekoa eta matrikula egiteko epea uztailaren 5etik uztailaren 20ra artekoa izan daitezen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa birtual baterako plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko otsailaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa birtual baterako plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa birtual baterako plan bat egin dezan

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrek Nafarroa birtual batean esku hartzeko plan bat egin dezan hamar hilabeteko epearen barrenean; helburua da familia nafar guztiek baldintza berak izan ditzatela teknologia berrietara eta informazioaren nahiz telekomunikazioaren sareetara heltzeko ere. Plan horrek helburu hori lortzeko egokiak diren neurriak proposatuko ditu informatikarekin zerikusia duten gai guztietan, hala nola Internetera konektatzeko edo posta elektronikoa izateko tarifa moduzkoak eta programa informatikoak erabiltzeko erraztasunak."

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualde-orekari buruzko plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko otsailaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualde-orekari buruzko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualde-orekari buruzko plan bat egin dezan

Hamar hilabeteko epearen barrenean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako eskualde-orekari buruzko plan bat eginen du, oinarri hartuta bana-

keta eta errenta. Horretarako erabiliko diren datuak ez dira ekonomikoak soilik izanen; beste irizpide batzuk ere erabiliko dira, hala nola demografikoak, azpiegiturei dagozkienak, sozioekonomikoak, sozialak, soziosanitarioak, osasunari dagozkionak, ingurugiroari dagozkionak eta abar. Planaren helburua izanen da eskualdeetako garapen- eta ongizate-politikak berraztertzea, oinarri hartuta, betiere, eskualdeen oreka lortzea eta eskualde behartsuenak garatzea.

Plan honek, gainera, ondoko irizpideak ere bildu beharko ditu:

a) Enplegua. Enplegua sustatzea emakumeen aldeko eta adin ertaineko langabetuen aldeko neurrien bidez.

b) Jasangarritasuna eta ingurumena. Ingurumenaren benetako zaindariak eremu pribilegiatu horietan bizi diren pertsonak izan dira. Ingurumena zaintzea eta garapena bateragarri izan daitezten lortu behar dugu.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumezkoaren berdintasunerako plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko otsailaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumezkoaren berdintasunerako plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumezkoaren berdintasunerako plan bat egin dezan

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lau hilabeteko epean Nafarroako Parlamentura igor dezan gizonen eta emakumeen Aukera Berdintasunari buruzko Plan bat, "Emakumeei buruzko Pekingo Munduko IV. Konferentzia"ren ondorioetan oinarrituta, eta "gizonen eta emakumeen aurkera-berdintasunaren aldeko Europako 4. ekintza-programa"ren helburuak bilduko dituen.

Helburu horiek ondoko ikuspegietatik landu beharko dira: garapen demokratikoa, hezkuntzaren eta kulturaren garapena, gizarte ongizatearen garapena eta garapen ekonomikoa. Arreta berezia emango zaio enplegu-sorkuntzan bazterkeriarik ez egoteari.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan

FORU ARAUBIDE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko foru lege proiektu bat igor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak, 2000ko otsailaren 15ean egindako

bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko azaroaren 24ko 23 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan”. Aipatu Erabakia 1999ko abenduaren 9ko 25 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Erabaki horren transkripzioan akats bat atzeman da eta jarraian testu zuzena bere osotasunean argitaratzen da.

Iruñean, 2000 otsailaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko behar den hitzarmena burutu dezan

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea, aldez aurretik Nafarroako toki administrazioetako ordezkariekin –Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez– eta funtzionarioen ordezkariekin adosturik –sindikatuaren bidez–, Gobernu Zentralarekin hitzarmen bat egin dezan, urtebeteko epean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Hitzarmen hori dela medio, Nafarroako Foru Administrazioiko eta Toki Administrazioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartuko dira. MUNPALi atxikitako toki administrazioiko funtzionarioen sarreran izan ziren baldintza eta bide berak edo hobeak izan beharko dira oraingo sartze honetan ere.”

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko plan bat egin dezan

AKATS ZUZENKETA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzerriko hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko plan bat egin dezan”. Aipatu mozioa 1999ko azaroaren 30eko 24 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Mozio horretan akats bat atzeman da eta jarraian zuzentzen da.

Erabaki proposamenaren testuan, “hamar hilabeteko epearen barrenean” esaten denean, “sei hilabeteko epearen barrenean” esan behar da.

Iruñean, 2000 otsailaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Audenasaren sozioa den aldetik, Administrazio Kontseiluaren bileran enpresari eska diezaion nafar zergadun guztiei “txartel gorria” bidal diezaiela

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Audenasaren sozioa den aldetik, Administrazio Kontseiluaren bileran enpresari eska diezaion nafar zergadun guztiei “txartel gorria” bidal diezaiela”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketara Osoko Bilkuran burutzea. Halaber, Mahaiak ezarri du emendakinak aurkezteko epea otsailaren 23ko goizeko hamarretan bukatuko dela.

Iruñean, 2000ko otsailaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 108, 109, 192 eta ondoko artikuluetan xedatutakoren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du presako tramitazioa eman dakion. Horren xedea da Nafarroako Gobernuak, Audenasaren sozioa den aldetik, otsailaren 23an eginen den Administrazio Kontseiluaren bileran enpresari eskatzea Audenasako txartel gorria bidal diezaiela ibilgailu arina duten nafar zergadun guztiei, horrela, errepide hori doakoa ez den bitartean, besterik gabe gozatu baitituzte Nafarroako Gobernuak gutxi barru onetsiko dituen beherapenak.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak, 2000ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen Audenasaren enpresari proposatzea % 46 jaisteko A-15 autopista erabiltzeko tasak Audenasaren txartel gorria duten ibilgailu arinei. Proposamen hori heldu den astean aztertuko du Audenasako Administrazio Kontseiluak eta Nafarroako Gobernuak otsailaren 28ko bilkuran behin betikoz onetsiko bide ditu proposatutako tasa horiek, martxoaren 1ean indarra har dezaten.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea poztu egiten da proposamen hori dela-eta, baina uste du erabaki hori presio politiko eta sozialaren eraginez hartu duela Nafarroako

Gobernuak, bere burua behartuta ikusi baitu –heldu den martxoaren 12an Gorte Nagusietarako eginen diren hauteskundeetan atarian– A-15ari buruz zituen planak aldatzera. Proposamen horrek orobat erakusten du Nafarroako Gobernuak ez duela erantzunik A-15aren arazoetarako, eta posiblea dela errepide hori doako bilakatzeko bidean pausoak ematea.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuko talde honen ustez, beharrezkoa da hala Parlamentuak berak nola talde sozialistak bereziki, Gobernuari behin eta berriro adieraztea A-15a erabat doakoa izan dadin eskatzen jarraituko dutela. Bitartean, nafar zergadun guztiek gozatzeko moduko gizar-te-bidesari gero eta merkeagoa aplikatzea lortu behar dugu.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, Nafarroako Gobernuaren oraingo proposamenak ez du asetzen nafar zergadun guztiek, beren eskubidez, bidesari “merkeagoak” ordaintzeko eskaria, asko eta asko baitira Audenasaren txartel gorria ez duten ibilgailu arinen erabiltzaile nafarrak.

Beraz, Parlamentuko talde honen ustez, A-15a doako bihurtzeko bidean, Audenasari exijitu egin behar zaio –Nafarroako Gobernuak hala eskatuta– txartel gorria bidal diezaiela zuzenean eta besterik gabe ibilgailu arina duten nafar zergadun guzti-guztiei, Gorte Nagusietarako hauteskundeetan atarian heldu den martxoan aplikatuko diren beherapenak gozatu ahal izan ditzaten.

Hartara, ondoko mozioa aurkeztu dugu Nafarroako Parlamentuak onesteko, eta, otsailaren 23a baino lehen onetsi behar denez, dagokion batzordean presako tramitazioa eman dakion eskatzen dugu:

Mozioa

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du otsailaren 23an eginen den Audenasaren Administrazio Kontseiluan enpresari eska diezaion txartel gorria bidaltzeko ibilgailu arina duten nafar zergadun guztiei; horrela, errepide hori doakoa ez den bitartean, besterik gabe gozatu baitituzte Nafarroako Gobernuak gutxi barru onetsiko dituen beherapenak.

Iruñean, 2000ko otsailaren 15ean

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--